



**Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Kohesioko Politika
Izartu programa**



2012ko maiatzaren 11

1.- Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako hirialdeak gizarte-eta ekonomia-mailan biziberritzeko lurraldetasunari begira berpizteko 116 egitarau integralen (Izartu programa) ebaluazioari eta ixteari buruzko datuak bildu dira txosten honetan.

Oinarrizko informazioa lortzeko aintzat hartu dira, batetik, programen tokiko arduradunek urteko egikaritze-txostenetan jasotako datuak, eta, bestetik, udalerrri onuradunek kontrataturik, ebaluazio-talde independenteek azken ebaluazioari dagokionez egindako txostenetan jasotakoak. Ebaluazio-taldeek programetan jasotako datu objektiboak hartu dituzte kontuan beren informazio eta ondorioak oinarritzeko, eta, hori ez ezik, tokiko Izartu programetako udal-planifikatzaileei, esku-hartzeak egikaritzearen arduradunei eta programaren azken onuradunei edo herritar hartzaileei egindako elkarrizketa eta inkestako emaitzak ere hartu dituzte oinarritzat.

236/2000 eta 306/2003 dekretuetan zehaztutako gizarte- eta ekonomia-kohesioko helburu orokorrekin bat etorritik udalerrri onuradunek 2001-2010 urteetan egindako ahaleginaren ikuspegi orokorra eskaini nahi du dokumentu honek.

2.- Aurrekariak

Azken hamarkadetan, Euskadiko toki- eta eskualde-garapeneko politikak jardun orokorra eta estrategikoa jarri du abian, Europarekin bat egitea lortzeko.

Ingurune ekonomiko guztien hazkunde-prozesuan desorekak ageri dira, eta horregatik diskriminazio positiboko mekanismoak ezarri behar dira gainbehera etorritako lurraldeei laguntzeko.

Ildo horretan, gainbehera etorritako eremuak biziberritzeko politika ardatz nagusietako bat izan da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren jardunaren bilakaeran, 90eko eta ondorengo hamarkadetan.

Politika horri gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio beraz, eta horren adierazgarri dugu azken legegintzaldietako gobernuak osatu dituzten koalizio-akordioetan eman zaion garrantzi berezia. Ildo horretan, atal horretarako aurrekontuei dagokienez ere ahalegin bikaina egin da, zenbait ekimenen bitartez zehaztu dena, hala nola Europa93 Plana (1989-1992), Euskadi XXI Plana (1996-1998) eta Euskadi 2000Hiru ekimena (2000-2003), guztiak ere, aparteko planak izaki, arlo horietaz bereziki arduratu direnak.

Euskadi 2000Hiru ekimena 2000. urtean sortu zen, legegintzaldi horretan gobernu-ekintza gidatuko lukeen konpromiso politikoa zehazteko.

Honako hiru helburu handi hauek zituen ekimenak: 1) Europarekin bat egitea biztanleko errentari eta enpleguari dagokienez; 2) Gizarte- eta lurralde-kohesioa, ongizateetik gehien baztertutako herritarrei eta hiri- eta ingurumen-degradazioa gehien pairatzen duten udalerriei lagunduz; eta 3) Modernizazioa eta bizi-kalitatea, informazioaren gizartean aurrera eginez.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak ekimen berritzaile bat ezarri zuen, gainbehera etorritako eremuetan esku hartzeko esparru berri bat antolatuz hirialdeak erabat biziberritzeko politika bat garatzeko. Azken batean tokiko administrazioen ardura izango zen ekimena, eta IZARTU Euskal Autonomia erkidegoan gainbehera etorritako hirialdeak biziberritzeko programa deitu zioten.

Ekimen berri hori 236/2000 Dekretuaren bitartez arautu zen. Dekretuaren arabera, proposamen jakin batzuk funtsezkoak ziren IZARTU programak batera finantzatzeko, eta inbertsio-asmoa zuten helburu eta estrategien plangintzatik abiatuta udalerrri bakoitzean egindako diagnostikoak bateratu behar ziren proposamen horietan. Proposamenen zeharkakotasuna era aintzat hartu zen, hau da, jardunak ez ziren sektorez sektore bereizi, udalerriaz gairik erakundeen esku utzita, eta, horren ordez, programa bateratuak osatu zituzten. Hortaz, tokiko erakundeen eskumenen barruan, hainbat jardun-ildo eta proiektu eratu eta osatu ziren, arlo horietako arazo espezifikoei ikuspegi orokor batetik heldu ahal izateko.

2003. urtean, Eusko Jaurlaritzak, 2001-2005eko Izartu programaren arrakasta ikusirik, udalerrri onuradunetan lortutako emaitzek berretsi

zutena, eta sortutako itxaropenak bultzaturik, ezarritako ildotik jarraitzeko erabakia hartu zuen. Hala, 2003ko abenduaren 16an, 306/2003 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako hirialdeak gizarte-eta ekonomia-mailan biziberritzeko lurraldetasunari begira berpizteko programa integralak sustatzeko neurriak ezartzeko.

Ekimen horien bitartez jardun-esparru egonkorra eratu nahi zen epe ertainera begira, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea, ekonomia eta gizarte hobeto kohesionatu eta egituratzeko.

3.- Izartu programaren bilakaera eta egungo egoera

3.1. 2001-2005eko Izartu programa

2001-2005ko Euskal Autonomia Erkidegoko hirialdeak biziberritzeko programa integralaren deialdira 58 programa aurkeztu ziren Euskadiko 54 udalerriren eskutik, oso askotariko jardun bateratuak proposatu zituztenak hirialdeak berpizteko. Udalerriek 367 milioi euroko finantza-laguntza eskatu zuten, eta Eusko Jaurlaritzak, horri erantzunez, hasiera bateko 90 milioi euroko zuzkidura handitu zuen, 150 milioi eurora igoz.

Hala, 2001-2005ko hirialdeak biziberritzeko programa integralak Euskal Autonomia Erkidegoko 47 udalerriri lagundu zien 51 IZARTU programari diru-ekarpenak eginez. Izan ere, herritar kopuruarengatik edo enklabeetako baldintza sozio-ekonomikoetan ageri ziren alde eta/edo antzekotasunengatik, Lezoko eta Oiartzungo udalek baterako programa aurkeztu zuten, eta Barakaldoko, Bilboko, Donostiako eta Portugaleteko udalek, berriz, 50.000 biztanletik gora izanik, bina programa bereizi aurkeztu zituzten.

Programa oro har nola garatu den aztertzeke lehen hurbilketa bat egitean, zera ikusten dugu, programak oso harrera ona izan zuela Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, nola aurkeztutako ekimen kopuruarengatik, hala azkenean onartutako programen guztizko kopuruarengatik eta gizarte-kohesioko helburuari dagokionez horrek berekin dakarren azken inbertsioarengatik.

lagun daitekeen inbertsioaren % 70 da, gutxi gorabehera. Dekretuak, oro har, diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 50eko laguntza ezarri du. Gainbehera etorritako eskualderen batean kokatutako udalerrri edo aldeetan, berriz, laguntza 75%. 47 udalerrri onuradunetatik 15ek finantziazioaren % 50 jasotzen dute, eta 32k, berriz, diru-laguntzaren % 75, hurrenez hurren.

Gainera, udalerrri bakoitzak 4 milioi euro inbertitzen ditu batez beste, gutxi gorabehera, baina onartutako 51 IZARTU programen heren batek baino gehiagok 6 milioi eurotik gorako inbertsioa egiten du, eta % 6k baino ez du 2 milioi eurotik beherako inbertsiorik egiten.

Herritar onuradunen kopurua ere bada guztizko inbertsioaren banaketaren adierazgarri. Zenbaitetan, udaleko herritar guztiak hartzen ditu eraginpean inbertsioak; beste batzuetan, aldiz, auzo batean edo udalerrriko alde espezifiko batean bizi direnak bakarrik. Herritar onuradunak 348.597 dira guztira, eta IZARTU programen batez besteko inbertsioa 1.750 € biztanleko, hurrenez hurren.

Hirialdeak biziberritzeko 51 IZARTU programa integral onartuetan 359 jardun bildu dira guztira, eta jardun bakoitzak gizarte- eta ekonomia-kohesioko helburu bati edo biri eskaini die arreta, 236/2000 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

1. *"Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzeko"* helburua betetzeko 28 programa eta 43 jardun garatu dira guztira, 55.217.320 euroko inbertsioarekin.

Programa indarrean egon den bitartean, lurzoru publikoari dagokionez 200.000 m² baino gehiago birgaitu dira, eta bideei dagokienez 60.000 m lineal baino gehiago sortu eta/edo berritu dira (bide horien erdia baino gehiago oinezkoentzako bideak dira).

2. *"Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hasteko"* helburua betetzeko 6 programa eta 6 jardun garatu dira guztira, 906.286 euroko inbertsioarekin.

Abian jarritako jardunek bi helburu nagusi izan dituzte: batetik, IKT berrien zentro eta ekipamenduen hornidura, eta, bestetik, informazioaren gizartearen eta e-Administrazioaren sustapena.

3. *"Esparru kaltetuak beren onera ekartzeko"* helbururako, berriz, 34 jardun garatu dira 20 programatan banatuak, 26.480.368 euroko inbertsioarekin.

Enpresak lekualdatuz, aurri industrialak birgaituz eta pabiloi eta lokalak birmoldatuz, industria- eta hiri-lurzoruari dagokionez 168.000 m² berreskuratu dira. Naturguneetan egindako jardunei dagokienez, aipatzekoa da eremu publikoarenak diren 650.000 m² baino gehiago birgaitu direla, erriberak beren onera ekarriz, ibaiak bideratzeko lanak eginez edo berdegune, parke eta pasealekuak sortuz.

4. *"Jarduera ekonomikoa bultzatzea, enpresa berriak sustatuz"* helburuari dagokionez, 12 programa garatu dira eta 15 jardun aurrera eraman,

8.795.988 euroko inbertsioarekin. Ekintzailtza sustatzeko zerbitzu eta eremuak sortzea, enpresak sortzea, eta industria, merkataritza eta hirugarren sektorea garatzeko eremuak gaitzea izan dira jardun horien jomuga nagusiak.

Hala, jarduera ekonomikoetarako 75.000 m²-ko azalera gaitu da, eta, aldi berean, 300 enpresa-ekimeni baino gehiagori eskaini zaie babes, prestakuntza eta aholkularitza eskaintzeko eta enpresak sortzea sustatzeko abian jarritako zerbitzuen bitartez.

5. *"Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babesteko"* helburua betetzeko, 15 programa eta 28 jardun garatu dira guztira, 14.041.061 euroko inbertsioarekin.

Ildo horretan nabarmentzekoa da 100dik gora modulu, ikastaro eta prestakuntza-tailer antolatu direla, 1.500 parte-hartzaile eta ia 300 lanpostu berri ekarri dituztenak. Gainera, eraikitako udal-ondareari dagokionez 25.000 m² baino gehiago birgaitu eta egokitu dira turismo-jarduera sustatzeko.

6. *"Hiriko jarduerak ingurumenean duten eragina murrizteko"* helburua betetzeko 22 programa eta 45 jardun garatu dira guztira, 31.333.486 euroko inbertsioarekin.

Nabarmentzekoa da hornidura- eta saneamendu-sareei dagokienez 38.000 m lineal baino gehiago berritu direla, eremu publikoei dagokienez 30.000 m² baino gehiago oinezkoentzat egokitu direla, plaza berriei dagokienez ia 25.000 m² sortu direla, eta lorategi, berdegune eta aisiaguneei dagokienez 370.000 m² sortu direla, hurrenez hurren.

7. *"Udalerriak gizarte-ekipamenduz hornitzeko"* helburua betetzeko 29 programa eraman dira aurrera 58 jardunen bitartez, 34.296.289 euroko inbertsioarekin.

Jardun horiei esker gizarte- eta kultura-erabilerako 38 ekipamendu sortu dira, 50.000 erabiltzaile izan dituztenak eta 122 enplegu sorrarazi dituztenak. Gainera, 20 udal-programa eta -zerbitzu berri ezarri dira 16.000 onuradunentzat, eta programa horiek sortu eta abian jartzeko ia 800 enplegu sortu dira.

8. *"Birgaitze-proiektuen bitartez hiri-itxura hobetzeko"* helburua betetzera bideratu dira esku-hartze gehien, guztira 70 jardun garatu baitira 25 programatan banatuak. Jardun horiek egikaritzeko, 42.506.777 euroko inbertsioa bideratu da guztira.

Helburu horretan oso emaitza onak lortu dira. Izan ere, alde horietan, etxebizitza eta eraikinetan 400 birgaitze baino gehiago gauzatu dira; hirigune historikoetan 35.000 m²-ko azalera berrurbanizatu da; zerbitzu-sareei dagokienez 10.000 m lineal berritu dira; eta bideei dagokienez 16.000 m lineal oinezkoentzat egokitu dira.



Behin udalerrri bakoitzaren helburu eta xede espezifikoak oro har aztertu ondoren, zera ondorioztatzen dugu, lehen deialdian helburu horiek ongi bete direla. 2001-2005ko 49 Izartu programek lortutako egikaritze-maila aztertzean zera ikusten dugu, ekimen osoarentzat aurreikusitako inbertsio osoaren % 93 egikaritu dela (Zumarragako eta Gernika-Lumoko udalek laguntzari uko egin behar izan diote ezinbestean, egikaritze-arazoengatik). Hortaz, Izartu programaren lehen deialdiari erantzunez, udalerrri onuradunek 206 milioi euroko inbertsioa egin dute guztira.


2001-2005eko Izartu programa

Udalerrria	Diruz lagun daitekeen inbertsioa	Emandako laguntza	Egikaritutako inbertsioa	Ordaindutako laguntza
Amurrio	4.663.869,48	3.497.902,11	4.663.869,48	3.497.902,11
Alonsotegi	6.907.821,27	4.573.365,95	5.337.104,11	4.002.828,08
Arrigorriaga	6.298.104,37	4.723.578,28	5.299.550,86	3.614.663,15
Balmaseda	2.847.791,53	2.135.843,65	2.847.791,53	2.135.843,65
Barakaldo-Gurutzeta	6.097.821,27	4.573.365,95	5.377.483,69	4.033.112,85
Barakaldo Lutxana	6.277.417,87	4.708.063,40	6.277.417,87	4.708.063,40
Basauri	6.767.312,20	5.075.484,15	6.767.312,20	5.075.484,15
Bermeo	2.959.112,35	2.219.334,26	2.959.112,35	2.219.334,26
Bérriz	3.214.402,78	1.607.201,39	3.214.402,78	1.607.201,39
Bilbo Zaharra	7.885.324,43	5.913.993,32	7.885.313,43	5.913.985,07
Bilbo (Otxarkoaga)	6.961.013,04	5.220.759,78	6.961.013,04	5.220.759,78
Deba	2.421.262,88	1.815.947,16	2.421.262,88	1.815.947,16
Donostia I (Altza)	4.689.727,66	2.690.422,68	4.689.727,66	2.690.422,68
Donostia II (Loiola)	5.380.845,36	2.344.863,82	5.379.764,00	2.689.882,00
Eibar	3.496.961,80	2.622.721,35	3.496.961,80	2.622.721,35
Elgoibar	3.411.394,84	2.558.546,15	3.411.394,84	2.558.546,15
Erandio	5.217.703,97	3.913.277,98	4.954.607,89	3.715.955,92
Ermua	4.304.676,30	2.152.338,15	4.304.676,30	2.152.338,15
Errenteria	4.483.332,56	3.362.499,43	4.483.332,56	3.362.499,43
Etxebarrí	2.528.462,97	1.896.347,23	2.528.462,97	1.896.347,23
Galdakao	7.416.116,64	5.562.087,48	5.743.184,03	4.307.388,02
Gernika-Lumo	2.600.859,47	1.950.644,60	0,00	0,00
Gordexola	1.793.530,61	1.345.147,96	1.793.530,61	1.345.147,96
Gueñes	2.293.462,19	1.720.096,65	2.293.406,41	1.720.054,81
Irun	6.053.627,34	3.026.813,67	6.053.627,34	3.026.813,67
Karrantza	5.739.568,40	4.304.676,30	5.720.578,38	4.290.433,79
Legazpi	4.035.281,40	2.017.640,70	4.035.281,40	2.017.640,70
Leioa	4.438.668,52	2.219.334,26	2.750.289,03	1.410.144,58
Lezo-Oiartzun	4.035.751,56	3.026.813,67	4.035.751,56	3.026.813,67
Loiu	1.345.147,95	1.008.860,96	1.345.147,95	1.008.860,96
Laudio	4.663.869,46	3.497.902,10	4.663.869,46	3.497.902,10
Mendaro	2.688.307,03	2.016.230,27	2.688.307,03	2.016.230,27
Mungia	3.362.499,44	1.681.249,72	3.359.430,12	1.679.715,06
Muskiz	1.703.854,07	1.277.890,57	1.703.854,07	1.277.890,57
Mutriku	3.587.230,23	2.690.422,67	3.580.204,75	2.685.153,56
Ondarroa	4.035.281,43	2.017.640,71	4.005.901,70	2.002.950,85
Ordizia	3.348.395,00	1.674.197,50	2.813.364,32	1.406.682,16
Urduña	5.380.845,36	2.690.422,68	5.380.845,36	2.690.422,68
Ortuella	4.663.869,48	3.497.902,11	4.663.869,48	3.497.902,11
Pasaia I	4.931.853,91	3.698.890,43	4.734.612,77	3.550.956,57
Portugalete Azeta	3.676.558,39	2.757.418,79	3.676.558,39	2.757.418,79
Portugalete San Roke	5.559.971,80	4.169.978,85	3.676.558,39	2.757.418,79
Santurtzi	6.366.746,01	4.775.059,51	5.559.971,80	4.169.978,85
Sestao	6.187.149,41	4.640.362,06	6.156.723,41	4.617.542,56
Soraluze-Placencia	5.605.106,02	4.203.829,52	5.589.535,18	4.192.151,39
Tolosa	3.901.289,22	1.950.644,61	3.901.289,22	1.950.644,61
Urretxu	2.018.345,92	1.009.172,96	1.898.447,97	949.223,99
Trapagaran	4.663.869,48	3.497.902,11	4.663.869,48	3.497.902,11
Zaldibar	3.214.402,72	1.607.201,36	3.214.402,72	1.607.201,36
Zegama	3.007.067,45	1.503.533,72	3.007.067,45	1.503.533,72
Zumarraga	3.214.402,76	1.607.201,38	0,00	0,00
GUZTIZKOA	222.347.287,60	150.253.026,07	205.970.042,02	137.993.007,37

3.2. 2004-2008ko Izartu programa

Lehen deialdian izandako arrakastaren ostean 124 udalerrik (Euskal Autonomia Erkidegoaren % 50) diru-laguntza eskatu zuten bigarren deialdian, hau da, programak lehen deialdian jasotako eskaera kopurua bikoiztu baino gehiago egin zen. Guztira 598 milioi euroko laguntza eskatu zen, 109 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura zuen programa baten esparruan.

Eskaera egin zuten 124 udaletatik, Euskal Autonomia Erkidegoko hirialdeak biziberritzeko programa integralak 68 udalerrri izan ditu onuradun.



68 udalerrri onuradunetan zenbait problematika mota bereiz ditzakegu. Batetik, zenbait udalerritan eremu degradatuak edo zatituak aurkitu ditugu, oztopo fisikoek zutik jarraitzen dutelako edota kongestio- eta kutsadura-maila handiak daudelako industriak eta etxebizitzak uztartzearen ondorioz. Beste udalerrri batzuek ekonomia dibertsifikatzeko aukera urriak dituzte, eta landako beste zenbait udalerrri, berriz, ekonomia garatzeko ardatzetatik urrun daude. Bestetik, hirialde edo auzo jakin batzuetan zera ikusi dugu, hirigintza-kalitateko estandar okerragoak dituztela beren udalerrietako gainerakoek baino.

Bigarren ekimen horri erantzunez, halaber, euskal udalerriek inbertsio handiak egin dituzte; izan ere, programa integraletarako guztira ia 173 milioi euro inbertitu dituzte, Izartu programak 109 milioi euro jarri dituela diru-laguntzen bitartez. IZARTU programaren bitartez proiektu onuradunei emandako batez besteko diru-laguntza, diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 63 da, gutxi gorabehera. Dekretuak diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko, % 50eko eta % 75eko laguntza ezartzen du, narriadura sozioekonomikoari eta lurralde-narriadurari dagokienez udalerriek betetzen dituzten irizpideen arabera. 68 udalerrri onuradunetatik 4k finantziazioaren % 30 jasotzen dute, 17 udalerrrik laguntzaren % 50 eta 47k diru-laguntzaren % 75, hurrenez hurren.

Gainera, programa bakoitzeko batez besteko inbertsioa 2,5 milioi euro da, eta 435.345 pertsona dira programaren onuradun (gutzizko biztanleriaren % 20,4), biztanle bakoitzeko batez besteko inbertsioa 400 € izanik.

Aldez aurretik aurreikusitako emaitzak zenbateraino bete diren balioestean, programa oso eraginkorra izan dela ikusten dugu. Horren adierazgarri dugu 262 jardun eraman direla aurrera programan zehaztutako gizarte- eta ekonomia-kohesioko helburuei jarraiki.

1. *"Lurralde-integratioko arazoak gainditzeko"* helburua betetzeko 56 jardun garatu dira guztira, 35 programatan banatuak eta 30 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.

Izartu programa amaitzean, aurreikusitako emaitzak gainditu egin direla esan dezakegu, eta programari esker, honako jardun hauek gauzatu direla: bideei dagokienez 99.000 m² sortu eta hobetu dira; pasabide, espaloi, bide eta ibilbideei dagokienez 45 km berritu dira; eta beste zenbait ekipamendu ezarri dira irisgarritasunaren mesedetan, hala nola 8 arrapala, 10 eskailera mekaniko eta 2 igogailu.

2. *"Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hasteko"* helburua betetzeko 6 jardun garatu dira guztira, 6 programatan banatuak eta 6 milioi euroko inbertsioarekin.

Zuntz optikoko sareetarako 1,6 km ezarri dira, informatika eta teknologia berriak erabiltzen hasteko programak garatu dira, eta administrazio digitaleko 4 ekimen jarri dira abian.

3. *"Esparru kaltetuak edota abandonatuak beren onera ekartzea eta hobetzeko"* helburua betetzeko 106 jardun gauzatu dira guztira, 57 programatan banatuak eta 81 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.

Helburu hori betetzera bideratu dira inbertsio eta programa gehien, eta bereziki nabarmentzekoa da milioi 1 m²-tik gorako azalera bere onera ekarri dela industriako, hiriko eta naturako eremuetan. Guztira hobera ekarritako azaleratik 780.000 m² erabilera eta zuzkidura berrietarako birgaitutako hiri-eremu publikoetan daude, eta 224.000 m² eremu natural degradatuetan daude. Azken eremu horiek beren onera ekartzeko, bideratzeko lanak egin dira, erriberak beren onera ekarri dira eta hainbat berdegune, parke eta pasealeku sortu dira.

4. "Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babesteko" helburua betetzeko, guztira 20 jardun eraman dira aurrera, 14 programatan banatuak eta 9 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.

Jardun horiei esker, udal ondareari dagokionez 9.000 m² baino gehiago birgaitu edo egokitu dira turismo-jarduera sustatzeko, eta ia 500.000 m² gaitu dira industriako, merkataritzako eta hirugarren sektoreko jardueretarako, enpresaburuak beharrezko azpiegiturak eta laguntza-programak jaso dituztela garatutako 600 ekimen baino gehiagoren bitartez.

5. "Hiriko jarduerak ingurumenen duten eragina murrizteko" helburua betetzeko 61 jardun garatu dira guztira, 35 programatan banatuak eta 31 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.

Jardun horiei esker, hornidura- eta saneamendu-sareei dagokienez 100.500 m lineal berri dira, eta 350 hektareatik gorako azalera birgaitu da; horietatik 44 hektarea baino gehiagotan parkeak eta berdeguneak birgaitu dira hirialdeetan.

6. "Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzeko" helburua betetzeko 13 jardun garatu dira guztira, 10 programatan banatuak eta 6 milioi euroko inbertsioarekin.

Ildo horretan, 22.300 m²-ko azalera gizarte-programetara bideratu da, ia 40.000 erabiltzaile berri eta bisitaldi erregistratu dira, eta 800 gizarte- eta kultura-jarduera baino gehiago jarri dira abian.

Azkenik, 2004-2008ko 67 Izartu programek lortutako egikaritze-maila aztertzean zera ikusten dugu, ekimen osoarentzat aurreikusitako inbertsio osoaren % 95 egikaritu dela (Leioako udalak laguntzari uko egin behar izan dio ezinbestean, egikaritze-arazoengatik). Hortaz, Izartu programaren bigarren deialdiari erantzunez, udalerrri onuradunek 165 milioi euroko inbertsioa egin dute guztira.

2004-2008ko Izartu programa

Udalerriak	Diruz lagun daitekeen inbertsioa	Emandako laguntza	Egikaritutako inbertsioa	Ordaindutako laguntza
Abanto	2.376.695	1.782.521	2.376.695	1.782.521
Zornotza	3.337.603	1.668.801	3.337.603	1.668.802
Andoain	2.156.467	1.617.350	2.156.467	1.617.350
Antzuola	3.899.956	1.169.987	3.899.956	1.169.987
Areatza	1.596.755	1.197.566	1.579.301	1.184.476
Arrasate	3.066.685	1.533.343	3.066.685	1.533.343
Arrigorriaga	1.935.596	1.451.697	1.935.596	1.451.697
Artzentales	2.197.845	1.648.383	1.787.640	1.340.730
Astigarraga	2.862.964	1.431.482	2.862.964	1.431.482
Ataun	1.917.684	1.438.263	1.917.684	1.438.263
Azpeitia	2.864.031	1.432.016	2.864.031	1.432.016
Balmaseda	2.265.295	1.698.971	2.265.295	1.698.971
Basauri	2.725.322	2.043.991	2.725.322	2.043.992
Bergara	4.852.280	1.455.684	4.175.157	1.252.547
Bermeo	2.282.292	1.711.719	1.918.677	1.439.008
Bilbao	2.928.721	2.196.541	2.928.721	2.196.541
Derio	2.902.530	1.451.265	2.902.530	1.451.265
Donosita-San Sebastián	2.473.773	1.855.330	2.473.773	1.855.330
Durango	2.162.223	1.621.668	2.162.223	1.621.667
Elgoibar	3.637.165	1.818.583	3.637.165	1.818.583
Elorrio	4.419.375	1.325.812	4.419.375	1.325.813
Erandio	3.155.010	2.366.258	2.950.169	2.212.627
Ermua	3.085.122	2.313.842	3.034.584	2.275.938
Errenteria	2.545.014	1.908.761	2.545.014	1.908.761
Eskoriatza	4.245.332	1.273.600	2.838.874	851.662
Etxebarri	2.895.504	2.171.628	2.895.504	2.171.628
Galdakao	2.514.778	1.886.083	2.315.967	1.736.975
Gernika	1.969.016	1.476.762	1.969.015	1.476.761
Gueñes	1.977.684	1.483.263	1.977.684	1.483.263
Hernani	3.160.597	1.580.299	3.160.598	1.580.299
Hondarribia	1.795.041	1.346.281	1.795.041	1.346.281
Ibarra	2.223.511	1.667.633	2.223.511	1.667.633
Igorre	2.765.700	1.382.850	2.765.700	1.382.850
Irun	2.765.379	2.074.034	2.765.379	2.074.034
Iurreta	2.299.019	1.724.265	2.299.019	1.724.264
Karrantza	2.023.768	1.517.826	1.828.967	1.371.725
Lasarte-Oria	2.127.618	1.595.714	2.127.618	1.595.714
Legazpi	2.949.969	1.474.984	2.894.580	1.447.290
Legorreta	1.572.341	1.179.256	1.572.341	1.179.256
Leioa	2.583.142	1.937.357	0	0
Lekeitio	2.122.810	1.592.107	2.122.811	1.592.108
Lemoiz	1.634.882	1.226.161	1.634.882	1.226.162
Lezo	1.814.917	1.361.188	1.814.917	1.361.188
Mallabia	2.658.634	1.329.317	2.105.768	1.052.884
Markina-Xemein	2.142.618	1.606.964	2.142.618	1.606.964
Mungia	1.743.235	1.307.426	1.743.235	1.307.426
Mutriku	3.232.822	1.616.411	2.497.519	1.248.759
Oiartzun	3.701.923	1.850.962	3.701.923	1.850.962
Orio	3.509.224	1.754.612	3.408.749	1.704.375
Otxandio	1.747.772	1.310.829	1.747.772	1.310.829
Portugalete	1.907.289	1.430.466	1.907.289	1.430.467
Salvatierra/Agurain	2.697.133	1.348.567	2.697.137	1.348.569
Segura	2.319.911	1.739.934	2.319.910	1.739.933
Sestao	3.088.779	2.316.585	2.796.760	2.097.570
Sopuerta	1.770.255	1.327.692	1.770.255	1.327.691
Soraluze	2.492.159	1.869.119	2.480.878	1.860.658
Tolosa	2.327.869	1.745.901	2.327.868	1.745.901
Turtzioz	1.875.223	1.406.417	1.742.052	1.306.539
Ugao-Miraballes	2.213.149	1.659.862	2.213.149	1.659.862
Trapagaran	2.178.104	1.633.578	1.955.148	1.466.361
Villabona	2.529.575	1.897.181	2.529.575	1.897.181
Vitoria-Gasteiz	2.740.965	1.370.483	2.740.965	1.370.483
Zaldibia	2.676.563	1.338.281	2.676.563	1.338.282
Zalla	2.033.554	1.525.165	2.033.554	1.525.166
Zeanuri	1.727.253	1.295.440	1.727.252	1.295.439
Zegama	1.968.271	1.476.203	1.968.271	1.476.203
Zierbena	2.686.721	1.343.361	2.686.721	1.343.361
Zumaia	1.877.491	1.408.119	1.870.838	1.403.129
GUZTIKOAK	172.933.908	109.000.000	164.716.804	104.135.797

4.- Izartu programaren ikuspegi orokorra

Bere bi deialdietan, Izartu programak hirialdeak biziberritzeko 116 programa integral garatu ditu guztira eta 86 udalerritan esku hartu du, hau da hiru lurralde historikoetan bildutako euskal udalerrri guztien % 35ean.

Guztira egikaritutako inbertsioa 371 milioi euro izan da, eta Izartu programak, batez beste, diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 66 finantzatu du. Aipatzekoa da, halaber, zuzeneko onuradunak 505.972 izan direla, eta zeharkako onuradunak 1,2 milioi izan direla, hurrenez hurren.

Zuzeneko onuraduna den herritar bakoitzeko batez besteko inbertsioa 800 euro izan da. Udal onuradunetan, berriz, batez besteko inbertsioa 350 euro izan da herritar bakoitzeko.

Egikaritzearekin zerikusia duten datu ekonomikoei buruzko hurbilketa horrek aditzera ematen digunez, Izartu programak arrakasta lortu du udalerrri onuradunetan.

Udalerrri onuradunek azken ebaluazioari dagokionez egindako txostenak aztertzean zera ikusten dugu, 116 programa oso egokiak izan direla programetako tokiko arduradunentzat eta udalerrri eta alde onuradunetako herritarrentzat. Tokiko arduradunek aho batez adierazi dute programen ikuspegi integrala egokiena izan dela udalerrrien gizarte- eta ekonomia-egoera aintzat hartuta.

Azken emaitzak ikusirik, tokiko arduradunen % 75ek uste du programak oso lagungarriak eta egokiak izan direla 2001tik 2004ra bitarte problematikotzat jo ziren egoerak gainditzeko.

Tokiko arduradunen gainerako % 25ak, ezarritako programak eta konponbideak oso egokiak direla uste badu ere, jardun-eremuetan oraindik zer hobetu asko dagoela uste du. Ildo horretan, zera adierazi dute, jardun-eremuetan oso aldaketa esanguratsuak egin direla bizi-kalitatearen mesedetan, eta aurrera eramandako estrategien arrakasta azpimarratu nahi izan dute horren harira; nolana ere, aldi berean oraindik ere zenbait premia eta helburu bete gabe jarraitzen dutela azpimarratu dute, eremu horietako problematika handia aintzat hartuta.

Azken batean, tokiko arduradunen iritziz, Izartu programa garrantzi handiko eragilea izan da udal horietako gizartea eta ekonomia biziberritzeko eta bizkortzeko prozesuan, eta hasiera eman dio, gainera, ingurumenaren eta hirialdeen gizartea eta ekonomia eraldatzeko prozesuari.

5.- Ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea, ekonomia eta gizartea hobeto kohesionatu eta egituratzeko azken helburuarekin sortu zen Izartu programa.

Lortutako emaitzak ikusirik, honako hauek azpimarra ditzakegu:

1. Lurralde-banaketako helburua bete da, 2001-2005eko lehen deialdian 45 udalerrik eta 2004-2008ko bigarrenean 67 udalerrik parte hartu dutelako, hurrenez hurren.
2. Herritarren zati esanguratsu bati arreta eskaintzeko helburua bete da.
3. Helburuei eta prozedurari dagokienez argi geratu da programa ongi sustraitua dagoela, 29 udalerrik bi deialdietan parte hartu baitute.
4. Egikaritzean konpromiso-maila handia nabari da.

Horregatik guztiagatik esan dezakegu Izartu programak batetik, ahalmen handia erakutsi duela udalerriei beren eguneroko ingurunea hobetzeko egindako ahaleginetan laguntzeko, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan ekimen aitzindaria izan dela, diseinua, plangintza eta egikaritzea tokiko eremura eraman duelako, udalerriei estrategia orokorra sortzeko, eta, horrela, programan jasotako aldeetako arazo espezifikoei heltzeko aukera emanez.